

AZPEITIA / Ipuin kontaketak datorren astelehenetik aurrera Udal Liburutegian

Liburutegia ez da irakurtzeko soilik erabili ohi.

DV. Haur eta gaztetxoek liburu zaletasuna suspertzeko Azpeitiko Udal Liburutegiak aurten 19. aldiz, hainbat ipuin kontaketa antolatu ditu Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Ekitaldi hauek 4 urtetik 9 urte bitartekoentzat izango dira. Irailean, urrian, azaroan eta abenduan, hainbat astelehenetan, arratsaldeko 6etan. Ipuin kontalariak, berriz, besteak beste, Pello Añorga, Lupe Lekuona, Maite Franko Mirian Mendoza eta Amaia Zinzukegi izango dira. Hasiera, datorren astelehenean emango diogu. Berau Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat izango da, eta ipuin kontalaria, berriz, Pello Añorga.